



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

18/02/22

PRENTSARAKO OHARRA

Bizkaibuseko emakidadunen egoerak eta segurtasunak zentrau dabe Garraio Foru Diputatuak Batzar Nagusietan izan dauen agerraldia

Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesiorako Foru Diputatu Bizkaiko Batzar Nagusietako jagokon Batzordera etorri da gaur, oposizinoak egindako hiru eskariri erantzuteko. Horreetako bi Bizkaibusen gainekoak izan dira: lehenengoa, enpresa emakidadunetako baten egoera ekonomikoaren gainekoa, eta bigarrena, errepideko garraio zerbitzu publiko horretako lantaldeak jaso dituan erasoei eta irainei buruzkoa.

Lehenengo agerraldia EH Bilduk egindako eskariaren ostean etorri da, eta EMB enpresa emakidadunak bizi dauen egoera ekonomikoan zentrau da. Zigor Isuskiza batzordekideak enpresak lantaldeari, gaiztasun ekonomikoak jasaten ari dala autortuz, emondako informazioa aitatu dau. EH Bilduko bozeroaleak, zerbitzuaren baldintzen pleguaren diseinu desegokia dala eta Vicente Reyesek jaso dauen “oinordekotza pozoitua” aitatu dau. Gainera, aurreikuspen faltea leporatu deutso Garraio Sailari, eta Bizkaibusen beste emakida batzuk jasan daikien “domino efektu” posiblearen gainean galdetu dau.

Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, momentuz berak ez daki holango arazorik dagonik, baina bere Sailak txosten bat jarri dau martxan, enpresa emakidadunaren diru-sarrerak eta gastuak aztertzeke. “Ez nabil ezer ezkutetan, eta informazino zehatza daukadanean Batzar honeen aurrean azalduko dot, baina ez naz susmoak zabaltzen edo zalantzak sortzen hasiko datuak ezagutu aurretik”, adierazo dau Reyesek.

Podemos Bizkaia taldeko bozeroaleak baldintzen pleguaren eskaintza merkearen eta zerbitzuaren kudeaketa txarraren gainean EH Bilduk esandakoa berretsi dau. Talde Mistoko ordezkariak gai horren inguruan “zuhurtzia eta plangintzea” behar dirala adierazo dau, eta Talde Popularrak esan dauenez ez da ona “holangoetan parte hartzea eta enpresa baten hitzarmen kolektiboko negoziazioetan sartzea”.

Euskal Sozialistak taldeko bozeroalearen eretziz, Vicente Reyesek iragarri dauen txostenaren emaitzak itxoitea da onena. Euzko Abertzaleak taldeko ordezkariak be, neurriak “egoera zorrotz eta sakon aztertu ostean” baino ez dirala hartu behar adierazo dau.

Bizkaibusen inguruko bigarren agerraldia, lantaldeak jasaten dituan eraso, irain eta mehatxu salaketetan zentrau da. Podemos Bizkaia taldeko bozeroaleak, joan dan urtarrilaren 26an sindikatuek egin eben salaketea aitatu dau. Dakigunez, gidarien kontrako 15 heriotza mehatxu egon dirala esan dau, eta Aldundiak zein neurri jartea aurreikusten dauen galdetu dau. Gainera, sindikatuen beste salaketa bat be azpimarratu

dau, hau da, autobusek daukien alarma oharraren bitarteko laguntza zerbitzuak “ez dauela inoiz funtzionau”.

Vicente Reyesek kuantifikau egin dau arazoa, eta esan dau 2016. urtearen hasieratik gaur egunera arte 151 gatazka egon dirala Bizkaibusen. Horreetatik 51tan, larritasun gehiagoko edo gitxiagoko erasoak egon ziran, eta 11tan beharrezkoa izan zan poliziaz parte hartzea. Denpora tarte horretan, 54 milioi bidaiari baino gehiagok erabili eben zerbitzua 2,3 milioi bidaiatan. Holan, Reyesek, ez dala arazo orokorra azpimarratu gura izan dau, baina “eraso bakotxa gertakari larria eta garrantzitsua dala” ahaztu barik. Foru Diputatuak, daborduko martxan dagozan edo jartea aurreikusten diran segurtasuneko neurriak eta protokoloak be azaldu ditu.

Garraio Diputatuaren azkenengo agerraldiak, Bilbao Air soziedadearen Plan Estrategikoaren gainean EH Bilduk egin dauen eskariari erantzun deutso. Vicente Reyesek azpimarratu dauenez, Aldundia, Batzar Nagusiek eurek onetsitako jarraibideak jarraituz aritu da, eta Bilbao Airren akzinoak saltzeko prozesua eta Soziedade Anonimotik Soziedade Mugatura izan dauen aldaketea, Bilboko Merkataritza Ganberak soziedadearen kontrola hartzeko prozesua, eta kudeaketa plan barria martxan jarri izana zehaztu ditu. Holan, Reyesek argitu dauenez, Bizkaiko Foru Aldundiak 50.000 euroko diru-laguntzea onetsi dau 2018ko Aurrekontuetan Bilbao Airrentzat. Soziedadeak jagokon memorian justifikau beharko dau.

SAN MAMESEKO METRO GELTOKIAREN IZENAREN ALDAKETEAK

Garraio Batzordearen eguneko gai zerrendea izen bereko metro geltokiaren izena “San Mames” izaten jarraitzearen aldeko Arauz Besteko Proposamena onetsiz osatu da. Ekimena Arturo Aldecoa Talde Mistoko ordezkariak bultzatu dau, orain denpora gitxi geltokiaren izena “Santimami – San Mames” bilakatu ostean. Aldecoak adierazo dauenez, gaztelaniazko izena da gehien ezagutzen dana, baita euskeraz esaten danean be. Ekimena onetsi egin da, Euzko Abertzaleen, Euskal Sozialisten eta Talde Popularraren aldeko botoakaz eta EH Bilduren eta Podemos Bizkaiaren kontrakoakaz, azken talde horreen ustez izen elebidunak ez dauelako ezelango nahasketarik eragiten.

22/02/18

NOTA DE PRENSA

La situación de las concesionarias y de la seguridad en Bizkaibus centra la comparecencia del Diputado Foral de Transportes en Juntas Generales

El Diputado Foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, ha comparecido esta mañana ante la Comisión correspondiente de las Juntas Generales de Bizkaia para responder a tres solicitudes formuladas por la oposición. Dos de ellas han hecho referencia a Bizkaibus: la primera en relación a la situación económica de una de las empresas concesionarias, y la segunda referida a agresiones e insultos que ha sufrido la plantilla de este servicio público de transporte por carretera.

La primera comparecencia ha sido consecuencia de una petición de EH Bildu, y se ha centrado en la situación económica que atraviesa la empresa concesionaria EMB. El juntero Zigor Isuskiza ha hecho referencia a la información facilitada por la empresa a la plantilla en el sentido de que atraviesa dificultades económicas. El portavoz de EH Bildu ha mencionado la “herencia envenenada” que ha recibido Vicente Reyes derivada de un deficiente diseño en los pliegos de condiciones del servicio. También ha acusado al Departamento de Transportes de falta de previsión y se ha preguntado sobre un posible “efecto dominó” hacia otras concesiones de Bizkaibus.

El representante foral ha respondido en el sentido de que, por el momento, no tiene constancia de la existencia de problemas, si bien su Departamento ha puesto en marcha un informe para analizar los ingresos y gastos de la concesionaria. “No estoy escondiendo nada y cuando disponga de información concreta la expondré ante estas Juntas, pero tampoco voy a especular ni a crear incertidumbre antes de conocer los datos”, ha señalado Reyes.

La portavoz de Podemos Bizkaia ha incidido en los argumentos de EH Bildu en cuanto a una oferta a la baja en los pliegos de condiciones y una mala gestión del servicio. El representante del Grupo Mixto ha abogado por la “prudencia y la planificación” en relación a este asunto, mientras que el Grupo Popular ha señalado que “no es bueno el intervencionismo ni inmiscuirse en las negociaciones del convenio colectivo de una empresa”.

Por parte del grupo juntero Socialistas Vascos, su portavoz ha señalado la conveniencia de esperar los resultados del informe anunciado por Vicente Reyes. El representante de Nacionalistas Vascos se ha mostrado igualmente favorable a “adoptar medidas solo a partir de un análisis riguroso y exhaustivo de la situación”.

La segunda comparecencia referida a Bizkaibus se ha centrado en las denuncias de agresiones, insultos y amenazas a la plantilla. La portavoz de Podemos Bizkaia se ha referido a una denuncia sindical del pasado 26 de enero y al conocimiento de hasta 15 amenazas de muerte a conductores y conductoras, y ha preguntado qué medidas de seguridad tiene previsto implantar la Diputación. Asimismo, ha insistido en la denuncia sindical de que el servicio de auxilio mediante aviso de alarma del que disponen los autobuses “nunca ha funcionado”.

Vicente Reyes ha cuantificado el problema señalando que, desde el inicio del año 2016 hasta la fecha, se han registrado un total de 151 conflictos en Bizkaibus, de los cuales 51 incluyeron agresiones de distinta gravedad y 11 requirieron intervención policial. En ese mismo tiempo, más de 54 millones de viajeros hicieron uso del servicio en 2,3 millones de expediciones. En este sentido, Reyes ha insistido en que no se trata de un problema generalizado, si bien “cada una de las agresiones constituye un hecho grave e importante”. El Diputado Foral ha expuesto asimismo las medidas de seguridad y protocolos ya en funcionamiento o que está previsto incorporar en el futuro.

La última intervención del titular de Transportes ha respondido a una solicitud de EH Bildu en torno al Plan Estratégico de la Sociedad Bilbao Air. Vicente Reyes ha subrayado el hecho de que la Diputación ha actuado de acuerdo a las directrices aprobadas por las propias Juntas Generales, y ha detallado el proceso de venta de las acciones de Bilbao Air

y su transformación de Sociedad Anónima a Sociedad Limitada, su toma de control por parte de la Cámara de Comercio de Bilbao y la puesta en marcha de un nuevo plan de gestión. En este sentido Reyes ha aclarado que la Diputación Foral de Bizkaia ha aprobado en su Presupuesto para 2018 una subvención de 50.000 euros para Bilbao Air, que la sociedad deberá justificar en la correspondiente memoria.

MODIFICACIÓN DEL NOMBRE DE LA ESTACIÓN DE METRO DE SAN MAMÉS

El orden del día de la Comisión de Transportes se ha completado con la aprobación de una Proposición No de Norma para el mantenimiento de la denominación “San Mamés” en la estación de metro homónima. La iniciativa ha partido del representante del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, ante la reciente modificación del nombre de la estación por “Santimami – San Mamés”. Aldecoa ha aducido que la designación en castellano es el nombre más reconocido, incluso cuando se menciona en euskera. La iniciativa se ha aprobado con el apoyo de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Grupo Popular, y la oposición de EH Bildu y Podemos Bizkaia, que argumentaban que la denominación bilingüe no induce a confusión.